

BIBLIOGRAFIARI BURUZKO JESUS OLAIZOLA BEKA, 2012. Urtea



UNIBERTSITATE-TITULUDUNENTZAKO BEKA DEIALDIA

- **DEITZAILEA:** Sancho el Sabio Fundazioa
- **INTERESDUNAK:** *Edozein diziplinako unibertsitate-tituludunak. Atzerrian eskuratutako tituluak baliozkotuta edo onartuta egon beharko dira.
*Beka norbanakoek nahiz ikerketa-taldeek jaso ahal izango dute.
- **XEDEA:** Sancho el Sabio Fundazioaren lehen zuzendari izan zen Jesús Olaizola Mugicaren izena du beka, eta urtero egiten da deialdia haren omenez.
Bekaren helburua da datu-base bibliografiko bat egitea, gai librearekin, euskal kulturaren ezagutzaren esparruan (zientzia, teknologia, zuzenbidea, artea, hizkuntza, historia, eta abar.), Sancho el Sabio Fundazioaren fondoetan eta datu baseetan bilduta dagoen euskal bibliografiari buruzko edozein euskarri eta/edo diziplinako informazio osatzeko eta eguneratzeko.
- **BALORAZIOA:** Beka hori lortzeko hauxe baloratuko da:
 - a) Espediente akademikoa
 - b) Euskal kulturari buruzko gaietan aritu izana
 - c) Beste meritu batzuk hala nola, bekak, sariak, argitalpenak, etab.
 - d) Sancho el Sabio Fundazioaren bibliografi fondoak osatzeko proiektuak duen interesa.
- **ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA:** 2012ko urtarrilaren 31arte. Bekaren iraupena 10 hilabetekoa izango da.
- **ORDAINSARIA:** guztira 6000 euro. Ordainketa hiru epetan egingo da. Bekadunak istripu, minusbaliotasun edo heriotza arriskuak estaltzen dituen aseguru, bere kontura, formalizatu beharko du. Aseguru horren poliza Sancho el Sabio Fundazioari aurkeztu beharko dio.
Bekaren iraupena beste edozein soldata jasotzea bateraezina da, lanbide arteko gutxieneko soldata gainditzen badu.
Beka lortzen duenak, ezarrita dauden hamar hilabeteetan zehar ezin izango du lanbide arteko gutxieneko soldata gainditzen duen inolako diru-kopururik jaso.
Lanen jarraitutasun eta aprobetxamendu normala eragozten dituzten etendurak saihesteko, Bekari uko egiteak lan egindako denborari dagozkion eskubide ekonomikoak galtzea ekarriko du, lanaren 2/3 osatuta daudenean eta epe horri dagozkion emaitzak entregatuta daudenean salbu.
- **ESKARIAK AURKEZTEKO:**
Eskariarekin batera hauxe aurkeztu beharko da:
 - Beka eskatzeko gutuna.
 - Eskatutako tituluak, baita eskatzaileak egokitaz jotzen dituen bestelako merituen egiaztagiriak ere.
 - Aztergaia aukeratzeko dituen arrazoiak adieraztea.
 - Curriculum Vitae.
 - Azterlanaren helburu kuantitatiboak eta kualitatiboak.
 - Plangintza, eta ikerketa egiteko erabiliko den metodoa.
 - Eskatzaileak bere ikerketa-proiektua azaldu eta ezagutarazteko bidezkotzat jotzen dituen beste zenbait alderdi.

Agiriari POSTAZ bidali edo NORBERAK aurkeztuko ditu Sancho el Sabio Fundazioaren egoitzan, Portal de Betoño 23zk., 01013 VITORIA-GASTEIZ.
- **MERITUAK BALORATZEKO MODUA:** Kide hauez osatutako epaimahaiak egingo du balorazioa:
 - Aurrezki Kutxako Kultur eta Gizarte Ekintzen zuzendaria edo horrek eskuordetzen duen pertsona.
 - Sancho el Sabio Fundazioko zuzendari teknikoa.
 - Unibertsitateko bi irakasle.
 - Agiritegi eta Liburutegietako Teknikari bat
- Hautatzen den lanaren emaitzen **aurkezpena** ACCESS datu-base batean egingo da.
- **HAUTAKETA:** Epaimahaiak zerrenda bat egingo du eta bertan beka esleitzeko hautagaia eta bi ordezkoko agertuko dira. Horiek ezarritako hurrenkeraren arabera lehentasuna izango dute izan daitezkeen uko egiteak edo beste edozein gertakari betetzerakoan.
- Epaimahaiak bekaren esleipena bete gabe utzi dezake bere ustez aurkeztu diren proiektuak ez badira deialdiaren baldintzetara egokitzen
- Epaimahaiak beka lortzen duenari bere lanaren xedean aldatetako egin ditzala eskatu ahal izando dio
- Bekadunak konpromisoa hartzen du hiru hilabetero lanari buruzko txosten bat bidaltzeko, ezarritako programaren arabera, baita azken memoria bat bidaltzeko ere.
- Azken ikerketaren jabetza Sancho el Sabio Fundazioarena izango da. Fundazio horrek ikerketaren zati bat edo ikerketa osoa argitaratu eta zabaltzeko eskubidea du, beti ere lanen egiletasuna errespetatuz.